Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

# Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala – Laugarren bilera

## Consejo Sectorial de Movilidad – Sesión Cuarta

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko urriaren 03**/ 03 de octubre de 2017<br>**Prentsa Sala** /Sala de Prensa<br>**18:00etan** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:55etan /** A las 19:55 horas |

**GAI-ZERRRENDA:**

ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko akta onartzea** | 1. Aprobación del acta anterior |
| **2. Garraio Bertikala zuzentzen duen plana aurkeztea** | 2. Presentación del Plan Director de Transporte Vertical |
| **3. Bidegorriak eta oinezkoentzako guneak** | 3. Los Bidegorris y las Zonas Peatonales. |
| **4. Galde-eskeak.** | 4. Ruegos y preguntas |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | | |
|---|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Pilar Arana (EAJ-PNV)<br>**Mugikortasun eta Garraioko Zinegotzi Ordezkaria**<br>Concejala Delegada de Movilidad y Transporte | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1. PP**<br>**2. EH BILDU** | 1. José María Murguiondo<br>2. Ayem Oskoz Urrutikoetxea |
| **KONTSEILUKO BOKALAK**<br>VOCALES DEL CONSEJO | **1. ELKARTU**<br>**2. KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkartea**<br>**3. Real Automovil Club Vasco Navarro**<br>**4. Colegio Oficial de Arquitectos**<br>**5. SShops Donostia San Sebastián**<br>**6. 3. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº3** | 1. Mikel Malcorra Ochotorena<br>2. Maite Alvarez<br>3. Luis Murguia Urreta<br>4. María Pons<br>5. Lourdes Lázaro Martinez<br>6. Juan Manuel Dublang |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **Begiris Elkartea** | |

| | | |
|---|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Mugikortasuneko Administrazio Ataleko burua /** Secretaría del Consejo. Jefa de Sección Administrativa de Movilidad | Josefa Estrella |
| **AHOLKULARITZA TEKNIKOA**<br>ASESORIA TÉCNICA | **INGARTEK enpresako teknikariak/**Personal técnico de la empresa INGARTEK<br>**Haizea Ikerketa S.L** | Udane Ansa y Sergio Barreña<br>Maider Etxaide |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **8 MKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Mugikortasuneko Zinegotzia, Kontseiluko Idazkaria, garraio bertikalaren gairako aholkularitza teknikoko 2 pertsona eta kontseiluko laguntza teknikoko ordezkari 1.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **3**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **5**<br><br>8 personas integrantes del CSM, además de la Concejala Delegada de Movilidad, la Secretaria del Consejo, 2 persona de asistencia técnica en materia de transporte vertical y 1 persona de la asistencia técnica del Consejo. | |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Mugikortasunerako Zuzendaritza –** Dirección de Movilidad: Urdaneta 13, 3º / 943 481380 / mugikortasuna@donostia.eus | |

## SAIOAREN BILAKAERA:

DESARROLLO DE LA SESIÓN:

Gai zerrendako puntuei hasiera eman aurretik, Kontseiluko Idazkaritzak Kontseiluko entitate jakinen izenean etortzen diren pertsonen inguruan aldaketak gertatu direla azaldu du. Alde batetik, Ayem Oskoz EH Bilduko Asier Jakaren ordez etorri da eta, bestetik, María Pons Arkitektoen Kolegio Ofizialeko ordezkari gisa etorri da Claudia Pennes-eren ordez. Ondoren, Begiris Elkarteak bere etorrera desenkusatu duela jakinarazi du.

Kalapieko ordezkaria bere erakundearen izenean etorri dela jakinarazi du, titularrak ez ordezkoak ezin baitzuten etorri.

Aurkezpen erronda burutu da eta ondoren Lehendakariak mugikortasun bertikalaren arloan Udalari laguntza teknikoa ematen dion INGARTEK enpresaren izenean etorritako teknikaria aurkeztu du eta pertsona honek gai zerrendako bigarren puntuan gaiaren garapena eskainiko duela erantsi du.

### 1. 1. Aurreko akta onartzea

Akta onartu da.

### 2. Garraio Bertikala zuzentzen duen plana aurkeztea.

Lehendakariak Garraio Bertikaleko Plan Zuzentzailearen lanketarekin, auzoak lehenestetik haratago, metodologia lan mamitsua egin dutela azaldu du, metodologia etorkizunean erabakiak hartzeko tresna baliagarria izateko xedearekin landu baitute. Planak garraio bertikalean beharrak dauzkaten hiriko eremuen zerrenda jasotzen duela eta zerrenda hau lehentasun ordena jakin batean eratuta dagoela erantsi du.

INGARTEKeko ordezkariak hitza hartu du burutu berri duten Garraio Bertikaleko Planaren edukiak, metodologia eta erauzitako ondorioak azaltzeko.

Azalpenaren ondoren, eta 3. Hiritar norbanakoak zenbait zalantza agertu ondoren, Lehendakariak aholku enpresak eman berri dituen azalpenak Udalak enkargatutako azterlan baten emaitza teknikoa dela jakinarazi du, eta aurrebalorazioa egin ondoren, elkarte desberdinekin bilerak burutuko direla eduki eta emaitzen inguruan eztabaidatzeko. Eta hortik aurrera erabakiak hartuko direla.

ELKARTUko ordezkariak exekuzio Planaren baitako jardueren egutegiari buruz galdegin du. Lehendakariak 2016-2017an burutzekoak diren jardueretarako onartutako aurrekontu saila badutela azaldu du. Gaur egun Morlanseko garraio bertikaleko sistema dago exekuzioan eta aurrekontu ordena jarraikiz hurrengo esku hartzea Larratxoko 3. maila izango da. Hortik aurrera Plan honen baitako zerrendako lehenengoarekin hasteko konpromisoa dago. Hain zuzen ere, hiru

Previo a dar inicio a los puntos del orden del día, la Secretaria del Consejo explica sobre los cambios habidos en relación a la asistencia de las personas que acuden en representación de las distintas entidades del Consejo: por un lado, asiste Ayem Oskoz en sustitución de Asier Jaka de EH Bildu, por otro lado María Pons en representación del Colegio Oficial de Arquitectos en sustitución de Claudia Pennese. A continuación, informa de que Begiris Elkartea ha excusado su asistencia para la sesión de hoy.

La representante de Kalapie expresa que acude en representación de su organización dado que ni el titular ni el sustituto podían asistir.

Se realiza una rueda de presentación tras la cual la Presidenta presenta a la persona que acude en representación de INGARTEK, empresa que presta asesoramiento técnico al Ayuntamiento en materia de movilidad vertical, quien va a realizar la exposición en el punto 2.

### 1. Aprobación del acta anterior.

Se aprueba el acta.

### 2. Presentación del Plan Director de Transporte Vertical

La Presidenta explica que el Plan Director de Transporte Vertical más allá de priorizar barrios ha supuesto un trabajo denso de metodología para que sirva como herramienta de decisión a futuro. Contiene un listado de zonas de la ciudad con necesidades en transporte vertical, estando esta lista sujeta a un orden de prioridades.

La representante de INGARTEK toma la palabra para explicar los contenidos, la metodología y las conclusiones obtenidas en la realización del Plan de Transporte Vertical.

Tras la exposición, y ante algunas dudas planteadas por parte del representante ciudadano nº 3, la Presidenta explica que lo que la consultora ha expuesto es el resultado técnico de un estudio encargado por el Ayuntamiento y que, tras una valoración previa, se realizarán reuniones con distintas asociaciones para debatir en torno a contenidos y resultados. A partir de ahí se tomarán decisiones.

El representante de ELKARTU pregunta por el calendario de ejecución de las actuaciones contenidas en el Plan. La Presidenta explica que existe partida presupuestaria aprobada para las actuaciones a realizar en 2016-2017. Actualmente se encuentra en ejecución el sistema de transporte vertical de Morlans y la siguiente actuación en orden de presupuesto

aurrekontu konprometiturik daude jada eta hauek burutzen joango dira aurrekontu erabilgarritasunaren arabera.

Esku hartze garestiak direla erantsi du, Heriz-en egitea planteatzen dena kasu. Honetan, Escolta Real-en eta Seminarioaren goialdearen artean 4 igogailu ipintzea aurreikusita dago eta haien ezarpena elkarren segidako 4 fasetan zehar egingo da. Exekuzio gastuaz gain mantenuarena erantsi behar da eta horrek esan nahi du urteko gastuaren kapituluan direnak eta ez direnak egin behar direla. Heriz-i dagokionean, 4 faseak onartuta daude eta 4 exekuzio proiektu enkargatuta daude. Hurrengo urratsa lehen fasearen exekuzioari ekitea izango da.

Sshops-eko ordezkariak galdetu du ea etorkizunean aukerarik egongo den Planean jasota ez dauden esku hartzeak ere baitaratzeko.

Lehendakariak erantzun du baietz, aukera hori badagoela. Izan ere, eremu batzuk zerrendan ez dira sartu oraindik garatu gabe daudelako. Haien garapenari ekingo zaion unean elementu bertikalak beharrezkoak ote diren erabakiko da eta, hala izanik, eremuak zerrendan sartuko dira eta aurkeztu den Plan Zuzentzaileko ibilbideek jasandako irizpide anitzeko analisi berbera aplikatuko zaie.

RAC-eko ordezkariaren iritziz Planaren exekuzioak urte asko beharko ditu eta, beraz, Plana beraren eraldaketara eramango duten aldaketak gerta daitezke bitartean. Esaterako, osasun zentro berri bat sortzeak Planean aldaketak eragin ditzake. Lehendakariak azaldu du metodologia honek gerora etor daitezkeen aldaketen arabera lehentasun zerrenda eguneratzeko aukera ematen duela.

Sshops-eko ordezkariak aurkeztutako Planaren dokumentazioa eskatu du. Lehendakariak txostena Udalaren Mugikortasuna webean kokatuta dagoela jakinarazi du. Nola nahi ere, kokagunera iristeko esteka bidaltzeko konpromisoa hartu du.

3. Hiritar norbanakoak jakin nahi du ea, besteak beste, San Roke eta Lizardiko aldapetako bide mugikorrak Garraio Bertikaleko Planean sartuta dauden. Lehendakariak azaldu du elementu hauek irisgarritasun unibertsaleko elementu gisa kalifikatuta ez daudenez proiektutik kanpo geratu zirela.

## 3. Bidegorriak eta oinezkoentzako guneak

Lehendakariak azaldu du puntu honetako gaia Batzorde Iraunkorrak hautatutakoa dela oinezkoen eta txirrindularien arteko elkar bizitza debatean dagoen pil-pileko gaia baita. Udalaren lehentasuna baterako existentzia kontutan izanik bidegorrietan hobekuntzak egitean datzala azaldu ondoren, etorritakoei gaiari buruzko beren iritzia azaltzeko gonbita egin die.

RAC-eko ordezkariaren iritziz 30 Guneen ezarpenaren

aprobado es el 3º escalón de Larratxo. A partir de ahí existe el compromiso de comenzar con el primero de la lista del presente Plan. En este sentido, tres presupuestos están ya comprometidos tras lo cual se irá ejecutando en función de las disponibilidades presupuestarias.

Añade que se trata de intervenciones caras, como la que se plantea en Heriz, que contempla 4 ascensores entre Escolta Real y la parte alta del Seminario, a ejecutar en 4 fases consecutivas. Al gasto de ejecución se le debe sumar el de mantenimiento, lo cual implica la realización de muchos equilibrios en el capítulo del gasto anual. En lo que se refiere a Heriz, las 4 fases están aprobadas y los 4 proyectos de ejecución han sido encargados. El siguiente paso será comenzar con la ejecución de la primera fase.

La representante de SShops pregunta si existe la posibilidad de que a futuro se incorporen actuaciones no recogidas en el Plan y de ser así, cómo va a afectar ese hecho a la priorización actual.

La Presidenta responde que ciertamente existe esa posibilidad. De hecho, hay áreas que no están incluidas en la lista porque aún se encuentran sin desarrollar. En el momento en que se proceda a su desarrollo, se determinará si hay necesidad de incorporar elementos verticales y de ser así, estas zonas se incluirán en la lista y se someterán al mismo análisis multicriterio al que han sido sometidos los itinerarios del Estudio del Plan Director presentado.

El representante del RAC opina que la ejecución del Plan llevará muchos años por lo que pueden ocurrir cambios que lleven a que el Plan deba ser modificado, como por ejemplo, la creación de un nuevo servicio de salud. La Presidenta explica que la metodología permite actualizar la lista de priorización ante todos los cambios que puedan acontecer.

La representante de SShops solicita la documentación del Plan que se ha presentado. La Presidenta informa que el documento está alojado en la web municipal de Mugikortasuna. No obstante, se compromete a enviar el enlace de acceso.

El representante ciudadano nº 3 inquiere si los carriles móviles de las cuestas de San Roke y Lizardi, entre otros, están incluidos en el Plan de Transporte Vertical. La Presidenta explica que esos elementos quedaron excluidos de este proyecto por no estar calificados como elementos de accesibilidad universal.

## 3. Los Bidegorris y las Zonas Peatonales

La Presidenta explica que se trata éste de un tema elegido por la Comisión Permanente dado que la

ondoren bidegorriak baliorik gabe geratuko dira toki askotan. Bestalde, bizikleten zirkulaziorako araua aplikatzen ez dela uste du. Bere iritziaren arabera, agenteek ez dituzte inoiz espaloietan zehar zirkulatzen ari diren txirrindulariak ikusten. Sentikortze kanpainak jende zentzudunari begira egokiak badira ere, akatsean berriro erortzen direnenekin irmoa izan beharra dagoela erantsi du.

Lehendakariak azaldu du dagoen udaltzain kopurua ez dela egoera hori kontrolatzeko nahiko. Nola nahi ere, kasu batzuetan aplikatu izan da eta ondorioz zenbait lekutan espaloian bizikletaz zirkulatzen duten pertsonen kopurua jaistea lortu da, Groseko anbulatorio aldean, besteak beste.

EH Bilduko ordezkariak konponbidea behar duen puntu kritiko baten berri eman du: Easo eta Pedro Egaña kaleen arteko iskinean dagoen semaforoko zebra bidean pertsona eta bizikleten pilaketa gertatzen da gurutzatzeko zain dauden bitartean. Bestalde, bizikletek semaforoak gorriz pasatzeko ohitura handia daukate bere iritziaren arabera eta bizikletaz doazenei noiz gurutza dezaketen eta noiz ez argitzeko balio duten elementu semaforikoak ipin daitezela eskatu du.

RACeko ordezkariak adierazi du bizikletaz zirkulatzen duen jende askok ez duela argi izaten partekatutako guneetan oinezkoa dela lehentasuna duena. Garrantzitsua da txirrindulariek puntu hau oso argi edukitzea.

Sshops-eko ordezkariak Kontxako Pasealekuan, lur azpiko parkingaren irteera gunean alegia, puntu gatazkatsu bat dagoela jakinarazi du. Turista asko parkingetik oharkabeturik irteten dira eta ondorioz arrisku egoerak sortzen dira. Bestalde, jakinarazi du Kontxako Pasealekuko bidegorria gaizki erabiltzen duela korrika dabilen jende askok.

PP taldeko ordezkariaren iritziz bizikleta ibilgailu jasangarria da baina ibilgailua da azken batean. Txirrindulari askoren portaera eskasa dela eta bere talde politikoak sentikortze kanpainak egin daitezela eskatu du, isunak ipintzeari utzi gabe halere. Sentikortzeko ereduzko erreminta bat Kontxako parkingaren irteeran arautegiaren eta arautegia ez betetzearen ondoriozko isunen berri ematen duten liburuxkak mugikortasun agenteen eskutik banatzea izan daitekeela erantsi du. Bestalde, seinaleztapenean ahalegina egin dadila proposatu du berau urria edo desegokia den lekuetan. Bizikleten gainazaleko aparkalekuen kopurua handi dadila ere proposatu du bizikletak erabiltzen dituztenei erosotasun handiagoa eskaintzeko xedez.

RACeko ordezkariak lur azpiko bizikleta aparkalekuen zuzkidura ere, lur azpiko parkingetako azalera zati bat erabiliz, handitu beharko litzatekeela uste du.

Lehendakariak jakinarazi du Kontxako parkinga funtzio horretara egokitzeko xedea duen esku

coexistencia entre peatones y ciclistas es un tema candente que está en debate. Tras exponer que la prioridad actual del Ayuntamiento es realizar mejoras en los bidegorris teniendo siempre en cuenta la coexistencia invita a las personas asistentes a que emitan su opinión sobre el tema.

El representante del RAC considera que tras la implantación de las Zonas 30 los bidegorris quedarán obsoletos en mucho lugares. Por otro lado, opina que no se aplica la norma de circulación de bicicletas dado que, entre otras cosas, los agentes nunca ven a quienes circulan en bici por las aceras. Añade que hacer campañas de sensibilización es bueno de cara a la gente sensata pero que a de cara a los reincidentes hay que ser contundentes.

La Presidenta explica que la plantilla de guardias municipales no es suficiente para ejercer ese control aunque se aplica en algunos casos y se ha logrado en algunos sitios bajar el número de personas que circulan en bicicleta por la acera, como es el caso de la zona del ambulatorio de Gros.

El representante de EH Bildu informa de un punto crítico al que se debe buscar solución: semáforo de la calle Easo esquina Pedro Egaña en el que se apelotonan personas y bicicletas esperando en el paso de cebra para cruzar. Por otro lado, opina que las bicicletas acostumbran a cruzar los semáforos en rojo por lo que solicita que se instalen elementos semafóricos para clarificar a quienes van en bicicleta cuándo pueden cruzar y cuándo no.

El representante del RAC afirma que mucha gente que circula en bicicleta no tiene claro que en las zonas compartidas la prioridad la tiene el peatón. Es importante que las personas que van en bicicleta tengan claro este punto.

La representante de SShops informa de un punto conflictivo en el Paseo de la Concha en la zona donde confluye la salida del parking subterráneo. Muchos turistas salen del parking despistados y se generan situaciones de riesgo. Constata, por otro lado, que el bidegorri del Paseo de la Concha es utilizado incorrectamente por gente que va corriendo.

El representante del grupo PP afirma que la bicicleta se trata de un vehículo sostenible pero que es un vehículo al fin y al cabo. Debido al mal comportamiento de muchos ciclistas su grupo político ha solicitado la realización de campañas de concienciación aunque sin dejar de sancionar. Sugiere como ejemplo de herramienta de concienciación que en la salida del parking de la Concha los agentes de movilidad repartan folletos con la normativa así como con información del tipo de sanciones derivadas de su

hartzea burutzeke dagoela oraindik.

Bestalde, aparkaleku mugikorrak eta parke bertikalak ezartzeko aukera iradoki da. Mota horretako esku hartzeei begira espazioa faktore mugatzailea dela erantzun da.

EH Bilduko ordezkariaren iritziz "bizikletaren kultura bat sortu beharko litzateke" eta horrek aparkaleku gaian ahalegina egitea eskatzen du. Bere aburuz bidegorriak eraiki dira baina osagarriak falta dira, bizikletarekin elkar bizitza ahalbidetzen duen beste guzti hura alegia.

Lehendakariak azaldu du hirigintza arauak eraikin berrietan bizikleta aparkalekuak ipintzeko betebeharra xedatzen duela nahiz eta eraikinaren barnean ipintzea behartu ez. Bestalde, udala bizikleta aparkalekuak ugaritzeko ildoan lanean dihardueIa jakinarazi du egungoak nahiko ez direla ohartzen baitira. Nola nahi ere, esku hartze hau abandonatutako bizikleta askoren kontzentrazioa ekidinez egin behar dela erantsi du. Izan ere, bizikletak kaleetatik ateratzea prozedura arras korapilatsua izatera iritsi da abandonatutako bizikleta hiri hondakin bihurtu den ondasun pribatua baita. Azkenik, bizikleten aparkalekuei dagokien kapitulua sartzeko xedez zirkulazio ordenantza aldatzea pentsatzen ari direla azaldu du.

EH Bilduko ordezkariak bizikleten aparkalekuen kokaguneak hiriaren turista mapetan adieraz daitezela proposatu du.

Arkitektoen Kolegio Ofizialeko ordezkariaren iritziz bizikletak propio banandutako bideetan zirkulatzen ez dutenean automobilekin bidea partekatuz zirkulatu behar dutela azaltzeko ahalegina egiten denez gero, autoei zuzenduriko kontzientziazio lana egitea beharrezkoa litzateke.

RAC-eko ordezkariaren aburuz pertsona berberak portaera desberdinak izaten ditu oinezkoa, txirrindularia edo auto gidaria izan.

Lehendakariak adierazi du finkatuta dauden 30 Guneak nahi baino bizikleta gutxiagok erabiltzen dituela eta, beraz, beharrezkoa da erabilera sustatzeko kanpainak burutzea.

ELKARTUko ordezkariak ikusmen zailtasunak dauzkaten pertsonek bereiz ditzaketen elementuak sar daitezela eskatu du, esaterako, lerro marraztuak ordezkatzen dituen zoladura latza. Bere aburuz, gainera, oinezkoekin arazoak ekiditearren bizikleten zirkulazioa xede duen espazioa ondo identifikatzea garrantzitsua da.

incumplimiento. Propone, por otro lado, que se haga un esfuerzo de señalización en los lugares donde ésta escasea o es inadecuada. También propone que se incremente el número de aparcabicis en superficie para ofrecer mayor comodidad a las personas usuarias de las bicicletas.

El representante del RAC opina que debería incrementarse asimismo la dotación de aparcabicis bajo tierra mediante la utilización de espacios en los parkings subterráneos.

La Presidenta informa que se encuentra pendiente la adecuación del parking de la Concha para esta función.

Se sugiere, por otro lado, la posibilidad de instalar también aparcamientos móviles y parques verticales, ante lo que se argumenta que el espacio es un factor limitante de cara a este tipo de actuaciones.

El representante de EHBildu opina que se debería generar una "cultura de la bicicleta", lo cual implica un esfuerzo en materia da aparcamientos. En su opinión, se han construido bidegorris pero faltan los complementos, es decir, todo aquello que implica convivir con la bicicleta.

La Presidenta explica que la norma urbanística obliga a la instalación de aparcabicis en la nueva construcción si bien no necesariamente dentro del edificio. Informa, por otro lado, que el consistorio está trabajando en la línea de incrementar los aparcabicis, dado que son conscientes de que no hay suficientes. Añade que esto debe hacerse evitando que se concentren muchas bicis abandonadas ya que retirar las bicis de la calles, por tratarse de un bien privado que se ha convertido en residuo urbano, resulta un procedimiento en extremo complicado. Explica, por último, que están pensando en cambiar la ordenanza de circulación e incorporar el capítulo referido a los aparcabicis.

El representante de EHBildu propone que se indiquen las ubicaciones de los aparcabicis en los mapas turísticos de la ciudad.

La representante del Colegio de Arquitectos opina que dado que se está luchando por y explicando que cuando la bici no circula por vía segregada debe hacerlo en coexistencia con los automóviles, es necesario hacer un trabajo de concienciación hacia los coches.

El representante del RAC opina que se dan determinados comportamientos según la misma persona sea peatón, ciclista o conductora de coche.

Lehendakariaren iritziz planteamendu horrek gatazkak eragiten ditu kasu batzuetan. Hori gertatzen da, adibidez, gorriz pintatutako Kontxako bidegorriarekin. Trazatua bereizteak bizikletak ahalduntzen ditu eta ondorioz hauek azkarrago zirkulatzen dute.

Udal eskuduntzatik kanpo dagoen kontua izanik ere, Lehendakariaren ustez bizikletek, autoen antzera, istripuen aurreko aseguruak edukitzea interesgarria litzateke norbait harrapatzen duten kasuetarako.

Kalapieko ordezkariak jakinarazi du bere erakundeko kide orori hirugarrenentzako erantzukizun zibileko asegurua automatikoki egiten zaiola jakinarazi du.

3. Hiritar norbanakoak aipatu du Loiola kalean bizikleta bidearen konpontzeari eutsi zaion arren oinezkoen pasabideko esku hartzeari ez zaiola oraindik ekin. Lehendakariak azaldu du ari direla goratutako oinezkoen pasabideetan esku hartzen.

RAC-eko ordezkariaren aburuz pasabide goratuek eragin oso negatiboa dute anbulantzien gisako larrialdiko garraioan. Bere iritziz, oinezkoen segurtasuna bermatzeko beste metodo batzuk, hala nola, galtzara estutzea, erabiltzeko aukera dago.

Amaitzeko, Lehendakariak jakinarazi du Udala Artzain Oneko lorategietan esku hartzeko asmotan dagoela oinezkoentzako propio den gune gisa babesteko xedez, hau da, eremuaren zeharkaldi osoan txirrindulariei bizikletatik jaistera behartuko zaie.

Bukatzeko, Lehendakariak oinezkoen eta txirrindularien arteko elkar bizitzaren gaiaren inguruko kudeaketarako bere Sailak gako gisa erabiliko dituen elementuak laburbildu ditu. Besteak beste, Kontxako parkingaren irteera puntuaren arriskugarritasuna konpondu, isunekin jarraitu, hezkuntza kanpainak eta 30 Kaleen erabileraren sustapenarekin jarraitu.

## 4 Galde-eskaerak

Sshops-eko ordezkariak autobus geltoki zaharraren eremua zertan dagoen galdetu du.

Lehendakariak eremuaren txukuntzea proiektatu dela azaldu du eta xedea dela landare elementuz apaindutako oinezkoentzako eremu atsegin gisa eraikitzea. Bizkaia Pasealekuarekin muga egiten duen aldean bizikletentzako gainazaleko aparkaleku estalia egingo dela, aurrerago haurrentzako jolas parke bat sortzea aurreikusita dagoela eta gainontzekoa aire libreko eremu gisa geratuko dela erantsi du.

La Presidenta afirma que las áreas 30 consolidadas son utilizadas por menos bicicletas de las deseadas, por lo que es necesario realizar campañas para fomentar su uso en dichas áreas.

El representante de ELKARTU solicita que se introduzcan elementos que puedan ser diferenciados por las personas con dificultad visual, como por ejemplo, rugosidad en sustitución del pintado de líneas. Opina, por otro lado, que es importante que se identifique bien el espacio destinado a la circulación de bicicletas con objeto de evitar problemas con los peatones.

En opinión de la Presidenta ese planteamiento genera conflictos en algunos casos, como ocurre en el bidegorri pintado en rojo de la Concha. Diferenciar el trazado empodera a las bicicletas haciendo que éstas circulen con mayor rapidez.

Aún tratándose de una cuestión fuera de competencia municipal, la Presidenta opina que sería interesante que las bicicletas pudieran contar con seguros contra accidentes al igual que los coches para los casos en que pudieran atropellar a alguien.

El representante de Kalapie informa que a todo socio de su organización se le hace automáticamente un seguro de responsabilidad civil a terceros.

El representante ciudadano nº 3 menciona que si bien en la calle Loiola se ha procedido al arreglo del carril bici, aún está pendiente actuar en el paso de peatones. La Presidenta explica que se está actuando en relación a los pasos peatonales elevados.

El representante del RAC opina que los badenes elevados tienen una repercusión muy negativa en el transporte urgente como el de las ambulancias. Para garantizar la seguridad de los peatones podrían utilizarse otros métodos, como estrechar la calzada.

Para finalizar, la Presidenta comunica que el Consistorio quiere intervenir en los jardines del Buen Pastor para protegerlos como zona exclusivamente peatonal, es decir, se obligará a las personas ciclistas a bajar de la bicicleta cuando atraviesen la zona.

Para finalizar, la Presidenta resume los aspectos hacia los que el Departamento orientará su gestión en materia de convivencia peatón/ciclista. Entre otras cuestiones: solucionar la peligrosidad del punto de salida del parking de la Concha, continuación con las sanciones, campañas de educación y continuar promoviendo la utilización de las calles 30 por las bicicletas.

## 4. Ruegos y preguntas

Lehendakariak azaldu du bizikleten azpiegitura berria autobusen geltokiko sistema berean oinarrituta dagoela eta autobusen aparkalekurako nasa batek okupatzen duenaren antzerakoa okupatuko duela. Egitura honen barnean pakete banaketarako plataforma bat ezarriko dela erantsi du.

EH Bilduko ordezkariak autobus geltokiko bizikleten aparkalekua ondo funtzionatzen ari ote den galdetu du. Lehendakariak, oraindik ongi funtzionatzen ari ez denez, jarraipena egiten eta hobekuntzak ezartzen ari direla erantzun du. Izan ere, hobekuntzetariko bat erabiltzaileei instalazioaren erabilera errazteko xedea duen aplikazio informatikoa da, 2 bizikleta aldi berean uzteko aukera ere ematen duena, besteak beste.

Sshops-eko ordezkariak San Martin kaleko espaloien zabaltze lanek irauten denboraldian hirirako sarbideak izango duen egoeraren inguruko kezka adierazi du.

Lehendakariak azaldu du lanak azaroaren 10erako esleituta egotea aurreikusita dagoela.

Lehendakariak saioa itxi du hurrengo Mugikortasunaren Kontseilu Sektoriala abenduan ospatuko dela jakinaraziz.

Bilera amaitu da.

La representante de SShops pregunta por la situación en la que se encuentra el área de la antigua estación de autobuses.

La Presidenta explica que se ha proyectado el adecentamiento del área erigiéndolo como un espacio amable, peatonal y acompañado de elementos vegetales. En el lado que linda con el Paseo de Bizkaia se creará un aparcabicis en superficie y cubierto. Más adelante está prevista la construcción de un área infantil con juegos. El resto se quedará como espacio al aire libre.

La Presidenta explica que la nueva infraestructura para el aparcamiento de bicicletas está basado en el mismo sistema que el de la estación de autobuses, que ocupará un área equivalente a un andén de aparcamiento de autobuses y contará en su interior con una plataforma para distribución de paquetería.

El representante de EHBildu pregunta si el aparcabicis de la estación de autobuses está funcionando correctamente. La Presidenta le responde que se está haciendo seguimiento y se están implementando mejoras porque aún no está funcionando bien. Una de las mejoras es la optimización de la aplicación informática, para que resulte más fácil de utilizar por parte de las personas usuarias y para que, entre otras cuestiones, se puedan depositar 2 bicicletas al mismo tiempo.

La representante de SShops expresa su preocupación por cómo va a estar el acceso a la ciudad durante el período en que duren las obras de ensanchamiento de aceras en la calle San Martin.

La Presidenta explica que está previsto que las obras estén adjudicadas para el 10 de noviembre.

La Presidenta cierra las sesión informando de que la próxima sesión del Consejo Sectorial de Movilidad se celebrará en diciembre.

Finaliza la reunión.